

Galdetu izan balidate zer euskal idazleri ez zioten AEBetan sartzen utziko, Katixa Agirre ez zen lehen aukera izanen, ezta bigarrena ere. Baina hala izan da: ESTA bidaiari baimen elektronikoa atzera bota diote eta bertan *Mothers don't izulpena* aurkeztu ahal izan gabe gelditu da. Apetatsua da burokrazia estatubatuarra, ez baitu



JIRA
Angel Erro

arrazoirik ematen noiz esanen dizun *halt* noiz abant.

Ez da edozein idazlek lehenagotik ezagutzen ez duen ezer, Parnasoko mugazainak ere apetatsua izaten direlako eta inor gutxik ulertzen da

guztiz, are onuragarria izanik ere, zeren arabera banatzen dituzten bisak, erresidentzia baimenak edo txartel berdeak.

Gorabehera gogaikarri honek ez ahal du Agirrerren nobelak ingelesez ere merezi duen harrera eragotziko. Burutik pasa zait *Amek ez dute*-ren ordez *Berriz zentauro* aurkezteko balitz, adimen artifizialaz sortutako argazkiak, ebentoarenak, zabal litzakeela sarean. Benetan gertatuaren eta *gertagarrikizunaren* arteko lehian bigarrena da nagusi, eragina baitu jendearengan ekintzen neke eta enbarazurik gabe. Begira bestela Trumpen atxilotetaren irudi faltsuak; kartzelara joan gabe (are hara joateko aukera murriztuz) sistemaren biktima izatearen abantaila (kasu honetan elektoral) guztiak lortu ditu.

Konpromisoa

Gazteek euskararen alde kaleak hartu zituzten ostegunean, eta ostiralean, Orereta ikastolako lagunek euskara batuari gorazarre egin zioten giza kate batean. Ederra da askok hilda nahi luketen hizkuntza baten aldarriek kaleak betetzea. Ez genuke, ordea, euskararen biziraupena ekintzaileen esku bakarrik utzi behar. Ondo



BIRA
Onintza Enbeita

dago gazteek, ikastolek, euskaltegiek, hiztegiak egiten dituen jendeak, Euskaltzaindiak... euskararen aldeko konpromisoak hartzea; izen horietan guztietan sartzen ez garenok ere, ordea, asko egin dezakegu hizkuntza-

ren alde. Egia esatea nahi baduzue, berdin dit gure hizkuntza Europako zaharrena den edo ez, berdin dit euskarazko hitzen erroak erromani-koak diren edo ez, berdin dit euskara ikastea beste mila hizkuntza baino errazagoa edo zailagoa den. Euskara nire hizkuntza da, eta hura erabiltzeko eskubidea dagokit.

Askok egin diegu gazteei txalo aste honetan sare sozialetan. Halako ekimen baten antolatzailak zorian zalegi eta beharrezko da, baina ez gaitzen horretan geratu. Euskarak denok behar gaitu: garai bakoitzak bizi dituen arazoan neurriko erantzunak behar ditu garai hori, gazteago edo zaharrago, bizi dugun guztion partetik. Leku, arazo eta momentu askoren aurrean gorputza jarri dugun bezala, jarri dezagun aho-tsa behar den leku orotan: euskaraz.

Demokraziak ETA garaitu zuen?

Jon-Mirena Landa
EHUko Zuzenbide Penaleko katedraduna eta Giza Eskubideen Unesco katedraren zuzendaria

Askotan, gehiegitan, esaten da ETA «garaitua» izan zela, hain zuzen ere Estatu demokratikoa haren aurkako borrokan gailendu egin zela. Baina hori ez da guztiz egia. ETA bezalako talde terroristaren aurkako politika kriminal sendoa egon behar zen zalantzarik gabe edozein demokraziatan. Ezin da onartu ideia jakin batzuen izenean hiltzea, bahitzea, mehatxatzea eta bestelako delitu larriak egitea. Artikulu honetan nabarmendu nahi dudana, aitzitik, zera da: halako politika kriminala, beharrezkoa, estandar batzuen arabera aurrera eramane behar dela zilegia izan behar izatekotan. Alegia, demokrazia bati dagokion politika hura inongo ez bairik gabe zilegizat jo ahal izateko, giza eskubideen zuzenbidearen estandarrak ere errespetatu behar dira.

Halako kontrapuntua jartzen denean, batzuetan ulertzen zen –eta oraindik ere ulertzen da– ETArekiko konplizitatearen bat egon litekeela tartean. Inolaz ere ez. Polarizazio politikoan mailarik gorenean geundenean, gure Herrian egun batean bai eta hurrengoan ere bai indarkeria nagusi zen aldia hain justu ere, ez zegoen gauzak *lasai* eztabaidatzeko modurik. *ETAren kontra edo alde*, nabardurik gabe, nahi zuten eragile politiko gehienek dena letratutako komunikabideek dena izatea: zuri ala beltz; nirekin edo nire aurka; haiekin edo gurekin. Gaur egun ere halako dinamikari eutsi nahi zaio, baina giro sozial eta politikoa berriak tartea zabaldu du eztabaida helduago bat, taxuzkoago bat egiteko.

Izan ere, beste aldi batean baikaude. Sufrimendu asko eta asko ez dira desagertu baina pixkanaka gizarteen gorputza errekuperatzen ari da, eta horrek balantze kritiko eta eraikitzailea egiteko beta zabaltzen du. Balantze kritikoa demokrazia sendotzeko, giza eskubideak hobeto eta sakonago gure Herrian sustrai daitezten.

Horregatik, esan daiteke lasai baina

irmo ETArekiko borrokan bai bide demokratikoak baina baita bide ez-demokratikoak ere erabili zirela. Noraino, ordea, ETArekiko borrokan, politika kriminalean, biktimen politketan, alderdien legean, makrosumarioetan... onargarriak ez ziren –eta ez diren– bide eta neurriak erabili ziren nahiko eztabaidatu, argitu eta aitortu gabe jarraitzen du. Segituan abusu batzuen sintesia egiteari emango diot.

Estatu demokratikoetan pertsona guztiak hiritar gisa izan behar dira tratatuak. Terrorismoaren aurkako borrokan izenean, ordea, *etsaiaren* moldeak erabili ziren sistematikoki funtsezko eskubide ugari suspendituz. Adibide garbiak: terrorista ia edonor izan zitekeen, mugarik gabeko definizioan, inkusio terrorista zela jakin gabe (dolo eta zuhurtziagabekeria nahasteraino); makrosumario ugari eta sistematikoen bitartez ETako kide zirenak zein ez zirenak, denak batera, sarekada indiskriminatuetan, ehunka hiritar atxilotu eta prozesatuak izan ziren, abusu prozesalaren bitartez; tortura eta tratatu txarrak modu (ia) sistematikoan erabili ziren itxura guztien arabera, ETA bera desagertu arte; presoaren birgizarteratzeko funtsezko eskubidea suspenditu egin zen eta horrekin batera tratamendua bera: horren ordez, zuzenbidea eta etika nahastuz, portortziorik gabeko zigorra ezarri nahi izan zen, gaur arte.

Aipatu bortxaketa eta abusuak diagnostiko diskurtsibo bikoitzaz baliatuz aurrera eramane egin ziren: batetik, *dena da ETA* izenekoaz, eta bestetik, terrorismo ez ezik, hura gizateriaren aurkako delitu gisa kalifikazioaren abusuak. Azkenekoak errealitateari bira eman zion: Estatua kontrolatua izateko subjektu bezala desagertu egin zen, eta horren ordez ETA, *inguruko jendarte* guztia (*entorno* izeneko), alderdi abertzaleak, euskal erakundeak (Ertzaintza barne askotan)... batasun moduan aurkeztuak izaten ziren, ETArekiko konplizeak balira bezala. Euskal lurraldean *garbiketa etnikoa* omen zegoen abian (Garzon epailearen autotan azaltzen zen moduan), nazismoaren holokaustoa eta euskal terrorismoa parekatzeraino!

Aurreko diagnostikoa biktimen legetara eramana izan zen. Eta horregatik, biktimen beraie inongo kulparik gabe, lege-mailaketa bati ekin zion legegileak: biktima batzuk primerako

estandarren arabera terrorismo-legetan sartuko ziren. Estatuarenak, ordea, edo bigarren mailakoetan sartzen ziren (hala nola, memoria historikoaren kasuan frankismoaren biktimekin) edo zuzenean desagertu egin ziren (1978tik aurrerako biktimekin kasu): ez zegoen torturarik, ez eta polizia giza-eskubideen urraketa larriak (judizioz kanpo exekuziorik, talde pribatuak bitartez aurrera eramandako terrorismoak...). Biktimen mailaketa eta hierarkia botere legegilearen bitartez gauzatu egin da, errealitate ofizial bat sortzeko, ETAk egindakoaren ondoan *itzalike* gogon ez dadin, Estatuak egindako urraketa oro desagertu zedin: izan ere, biktima ofizialik ez badago, ez baitago estatu-deliturik, ez eta giza-eskubideen bortxaketarik ere.

Deigarriena bada Estatuak erresidentzia ankerrari ekin diola giza-eskubideen estandarretatik kontrolatua izateko (horra hor, esaterako, botere judizialaren kontrolik eza, Estrasburgok ordetzu behar izan duena), baina, aldi berean, giza-eskubideen hizkuntza eta kategoriez baliatu izan dela ETArekiko aurka eta inkusio euskal gizartearen (*gizarte gaixoaren*) eta abertzaletasunaren aurka egiteko.

Estatuak egindako abusu eta bortxaketen tamaina ez dago begi-bistan: ezkutatu egin da diskurtso triunfalista baten azpian, eta errealitate gordin hura zatitu ere bai, lege desberdinetan lausoturik, gutxietsita. Bada garaia hori guztia ateratzeko. Eta ez alderdi bati edo beste bati komeni zaiolakoan, baizik eta denok horretarako egia-eskubidea dugulako. Ez bada jakiten Estatuak zein molde ez-zilegi erabili zituen (urraketa-patroiak), zein delitu egin zituen, nola sailhestuko delitu berriro ere errepikatzea? Bidean horrek guztiak utzitako biktimekin nola integratu beharko dira ba sistema demokratikoan, egindakoa aitortzen ez bada? Nola aterako dugu gai hau politizazio bitsetik, lan profesional serio baten bitartez egiteko aukera ematen ez bada?

Aitzakiak bukatu dira. Estatu-krimenak azkenerraino ikertu eta bere osotasunean argitara ematea Estatu demokratikoaren obligazioa besterik ez da, giza-eskubideen kultura indartu eta sustraitu nahi izanez gero. ETArekiko aurkako borroka *eredugarri* gisa aurkeztu nahi izanez gero, lehenago *argitu eta garbitu* beharra dago, adabakirik gabe, beldurrik gabe. Biktimek eta gizariek merezi dute!